

**2/2017 akta**

**OSATEK SA SOZETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2017KO MARTXOAREN 23AN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Presidenteak deituta, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua bildu da, Osateken egoitzan (Bizkaia Plaza eraikina, Urkixo zumardia 36, 5. solairua, Bilbo), 2017ko martxoaren 23an, 10:00etan. Hona hemen bileran izan direnak eta gai-zerrenda:

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA**

Ignacio J. Berraondo Zabalegi jauna

**KIDEAK**

M<sup>a</sup> Jesús Múgica Anduaga andrea

Andoni Arcelay Salazar jauna

Lide Amilibia Bergaretxe andrea

Daniel Salazar Irusta jauna

Susana López Altuna andrea, idazkari lanetan

Bertaratu ezina adierazi dute Fernando Agirre de Miguel jaunak eta Alberto Alberdi Larizgoitia jaunak; azken horrek, Osateken Administrazio Kontseiluko presidenteari zuzendutako idatzi batean, Osasun sailburuorde den Ignacio J. Berraondo Zabalegi jaunaren esku utzi ditu bere ordezkaritza eta botoa.

Osatek SAko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano Hernaiz jauna ere bileran izan da, hitza hartzeko eskubidearekin baina ez botoa ematekoa.

**GAI-ZERRENDA:**

1. 2016ko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.
2. Erresonantzia magnetikoko zerbitzuaren 2016ko urteko jarduera eta 2017rako aurreikuspenak.
3. Teleasistentzia eta Telemonitorizazio zerbitzuen urteko jarduera eta 2017rako aurreikuspenak.
4. Erresonantzia magnetikoko makina berriak instalatzearen inguruko informazioa.
5. Osatekeko lan-poltsen deialdiaren egoera.
6. Euskara Planaren egoera.
7. Teknikari manipulatzaile lan-poltsaren aurkako gora jotzeko errekurtsioak.
8. Kalitatea 2016an eta 2017rako aurreikuspenak.
9. 2016ko jarduera zientifikoaren laburpena.
10. Eskaerak eta galderak.

Osatekeko zuzendari kudeatzaile den Josu Xabier Llano jaunak hartu du hitza, gai-zerrendari heltzeko:

## 1. 2016ko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.

Kudeatzaileak urteko kontuen eta 2016ko ekitaldiko kudeaketa-txostenaren berri eman du. Hauek dira kontu horien eta itxiera ekonomikoaren datu esanguratsuenak:

- Egoeraren balantzea, 2016ko abenduaren 31n:
  - Aktiboa guztira (korrontea eta ez-korrontea): 13.722.219
  - Ondare garbia + pasiboa: 13.722.219
- Galdu-irabazien kontua, 2016ko abenduaren 31n:
  - Galdu-irabaziak: 69.078
- 2016ko ekitaldiko emaitzen banaketa-proposamena
  - Banaketaren oinarria: Galdu-irabaziak: 69.078
- Ibilgetu materiala:
  - Amaierako balio garbia: 6.806.912
- Ibilgetu ukiezina:
  - Amaierako balio garbia: 45.385
- Zerbitzuak emateagatiko sarrerak:
  - Erresonantzia magnetikoak: 16.153.854
  - Teleasistentzia/Telemonitorizazioa: 8.226.672
  - Guztira: 24.380.526
- Langileen gastuak
  - 13.059.881
- Beste ustiapen-gastu batzuk
  - 9.543.262

Sozietatearen langile finakoak guztira, 2016ko abenduaren 31n: 114 (72 emakume eta 42 gizon)

Jarraian, zuzendari kudeatzaileak kudeaketa-txostenaren atalak azaldu ditu, eta 2016an egindako jarduerak eta 2017an egiteko kontu garrantzitsuenak zehaztu ditu. Kontseilukideei aurretik emandako dokumentazioari erreferentzia eginez, ondorengo puntuak aipatu ditu:

## **Erresonantzia magnetikoko zerbitzuaren 2016ko urteko jarduera eta 2017rako aurreikuspenak.**

### Irudi bidezko diagnostikoa

2016an zehar, 98.446 paziente artatu genituen; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 4,56ko igoera izan zen.

2016an, erresonantzia magnetikoko 129.910 miaketa egin ziren; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 3,83ko igoera izan zen 2015. urtearekin alderatuta.

Sozietateak honako helburu nagusi hauek ditu 2017rako:

### Irudi bidezko diagnostikoa

Osakidetzarekiko hitzarmen erregulatzaileria berritzea:

Paziente kopurua: 103.840

Fakturazioa: 17.072.851 euro

Osasun Sailarekiko kontratu-programa berritzea

Fakturazioa: 40.769 euros

## **2. Teleasistentzia eta Telemonitorizazio zerbitzuen urteko jarduera eta 2017rako aurreikuspenak.**

### Teleasistentzia soziala (betiOn):

43.044 laguni eman zaie zerbitzua 2016ko abenduaren 31ra bitarte; hau da, 2015eko itxieran baino % 12 gehiago.

2017rako Teleasistentzia arloko aurreikuspenak ondorengo puntuetan oinarrituko dira:

- Koordinazio sozio-sanitarioarekin jarraitzea.
- Arreta pertsonalizatuko laguntza-eredurantz jotzea.
- Etxeko teknologiaren digitalizazioa ezartzea.
- Jarduketa komunitarioaren esparruan, oinarrizko gizarte-zerbitzuekiko eta osasuneko lehen mailako arreta zerbitzuekiko koordinazioa indartzea.
- Teleasistentziako Demostrazio Zentroa (CeDeTel) inauguratzea.

### Osasunaren telemonitorizazio-prozesuan:

United for Health, Telepoc eta TeleTAO proiektuen barruan, 428 paziente ingururi eman zaie zerbitzua.

Hauek dira arlo honetako aurreikuspenak 2017rako:

- 2 urterako eta 1+1eko luzapenerako argitaratutako espedientea esleitzea eta adjudikaziodun berriari zerbitzua eskualdatzea.
- Telemonitorizazio-plataforma Osakidetzaren Programa Kudeatzaile Integral berrian sartzea.
- Telemonitorizazio-programa berriak ezartzea, Osakidetzaren beharren arabera.

Emandako dokumentazioaren berri eman ondoren, eta Kapital Sozietateen Legearen Testu

Bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 253. artikuluan xedatutakoari erreparatuz, hau erabaki du Administrazio Kontseiluak:

«Lehenengoa: Sozietatearen 2016ko urteko kontuak eta 2016ko kudeaketa-txostenak onartzea. Bertaratutako kontseilukide denek eman dute sinadura euren adostasuna adierazteko.

Bigarrena: Sozietateko Akziodunen Batzorde Nagusiari, Kontseiluak aurkeztutako urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta 2016ko ekitaldiko emaitzen banaketa-proposamena ezagutaraztea eta onartzea proposatzea, horrela egitea egokia baderitzo.

Kontseiluaren bilerak aurrera egin du gai-zerrendako ondorengo puntuekin:

### **3. Erresonantzia magnetikoko makina berriak instalatzea.**

Aurreko bileran, Administrazio Kontseiluak eskaera egin zuen Areetako erresonantzia magnetikoko makina berritzeko eta San Eloy Ospitalean makina berriak instalatzeko. Eskararen erantzun gisa, 2017-2020 aldirako hedapen-plan baten proposamena jasotzen duen txosten bat aurkeztu du zuzendari kudeatzaileak. Txostenean kokapen posible guztien behar eta berezitasunak zehazten dira, baita ondorengo zentroetan makina berriak jartzeko aurrekontu-proposamena ere: Barakaldo Sestao ESI (San Eloy), Araba ESI (Txagorritxu), Debabarrena ESI (Eibar) eta Donostialdea ESI (Donostia Ospitalea). Horrez gain, Barrualde ESI (Galdakao Ospitalea) eta Uribe ESIko (Areetako Anbulatorioa) makinak berritzearen gaineko zenbatespenak ere jasotzen dira.

Aukera guztiak baloratu ondoren, 2017an Txagorritxu Ospitaleko kanpo-kontsultetarako eraikinean eta San Eloy Ospitalean erresonantzia magnetikoak egiteko makina bana instalatzeko prozesua hasteko erabakia jakinarazi zaio zuzendari kudeatzaileari. Arrazoi teknikoak direla eta aurten ezin bada San Eloy Ospitalean erresonantzia magnetikoak egiteko makina instalatu, Donostia Ospitalean beste makina bat instalatuko da.

### **4. Kalitatea 2016an eta 2017rako aurreikuspenak.**

Zuzendari kudeatzaileak 2016an zehar berritutako kalitate-ziurtagirien berri eman du: ISO 9001:2015, ISO 14001:2004 eta EKOSCAN araua.

2017rako aurreikuspenei dagokienez, hauek dira kontu interesgarrienak: urtero aurreko ziurtagiriak berritzea, kudeaketa aurreratuko ereduaren arabeko kanpo-egiaztatze bat egitea eta, 2014-2017ko Plan Estrategikoa ebaluatzea eta ixteaz gain, 2018-2021ko Plan Estrategikoa egitea.

### **5. 2016ko jarduera zientifikoaren laburpena.**

Kudeatzaileak sozietatearen jarduera zientifikoa errepasatu du, eta ondorengo puntuak nabarmendu ditu:

2016an zehar, Osatekeko profesionalek 34 proiektutan parte hartu zuten. Hedapenari dagokionez, hamazortzi artikulua argitaratu ziren. Sei proiektu berriri ekin zitzaizen lehiaketa-deialdietan lortutako finantzaketari esker, baita hiru saiakuntza klinikori ere.

Osatek sozietateak irakaskuntza eskaintzen die, halaber, beste zentro batzuetako erradiodiagnostikoko espezialistei eta barneko mediku egoiliarrei (BAME); bai eta inguruko zentroetakoei zein beste autonomia-erkidego batzuetakoei ere (Kanariak, Andaluzia, Gaztela). Medikuntzako ikasleei prestakuntza ematen ere parte hartzen du sozietateak.

## **6. Osatekeko lan-poltsen deialdiaren egoera.**

2016an ireki ziren lan-poltsen egoeraren berri eman du zuzendari kudeatzaileak.

Erradiologoak: Aurkezteko epea amaitu da; merezimenduak aztertzeke fasean dago. Martxoaren 14an egin ziren deialdiaren oinarrietan aurreikusitako elkarrizketak. Merezimenduak egiaztatzeke zain. Prozesua apirilaren bigarren hamabostaldian amaituko dela aurreikusita dago.

Teknikari manipulatzaileak: Gora jotzeke errekurtsuak ebatzi zain, prozesua amaituta dago. Hautagaiek dagoeneko hasi dute prestakuntza, puntuazio-ordenaren arabera.

Laguntzaileak: Merezimenduak barematzeke fasean dago. Aurreikusten da hilabete bukaerarako argitaratuko dela behin-behineko zerrenda, puntuazio-ordenaren arabera. Prozesua ekainaren lehen hamabostaldian amaituko dela aurreikusita dago.

Idazkariak: Oraingoz argitaratu gabe dago onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Prozesua irailaren lehen hamabostaldian amaituko dela aurreikusita dago.

## **7. Euskara Planaren egoera.**

Euskara Plana idazteke ikerketari ekin zitzaion urte hasieran, Osasun Saileko aholkulari den Roman Berriozabalekin elkarlanean; Osateken Euskara Plana aztertu, edukiak zehaztu eta bestelake eginkizunetarako beharrezke laguntza metodologikoa ematen digu. Kontseilukideei aurkeztutake dokumentazioan jasotzen den bezala, zenbait zeregini heldu zaie, Planaren lehen zirriborroa izateke eta 2017an zehar zabaltzen hasteke.

## **8. Teknikari manipulatzaile lan-poltsaren aurkake gora jotzeke errekurtsuak.**

Lan-poltsetakake teknikari manipulatzaile kategoriakake deialdian puntuazio-ordenaren araberake hautagaien behin betike zerrenda onartzen duen Xedapenaren 4. zenbakian, hilabeteke epean, webgunean zerrenda argitaratu eta ondorengo egunetik kontatzen hasita, Osatekeke Administrazio Kontseiluaren aurrean Xedapenaren aurka gora jotzeke errekurtsuak jartzeke aukera ezartzen da.

Illo horretan, jarraian azalduke diren gora jotzeke bi errekurtsu aurkeztu dira, Administrazio Kontseiluak horien inguruan erabaki dezan.

Espedientean jasotake informazioa helarazi zaio Administrazio Kontseiluari, hausnartu eta ebatz dezan.

**9. Eskerak eta galderak.**


Beste gairik egon ez denez, bilera amaituzat eman da, 14:30ean, hurrengo deialdira arte.

IDAZKARIA



Sinadura: Susana López Altuna

PRESIDENTEA



Sinadura: Ignacio J. Berraondo Zabalegui